

14.1.3 EXEKUZINO UNITATEAN, BERMEOKO GIZARTE ONGIZATE PATRONATUAK DAUKAN LUR ZATIAREN SALMENTA ENKANTE BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren gaia hauxe da: Toki Entitateetako Ondasun Erregelamendua onartzen dauan ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan ezarritako preskripzioak betetuz gero, Bermeoko Gizarte Ongizate Patronatuak 14.1.2 exekuzino unitatean, daukan lur zatia saltzea, ENKANTE PUBLIKO bidez egingo dana.

Kontratua, baldintza-agiri honetan oinarritzen da. Baldintza-agiri honek kontratu balioa dauka.

Saldu gura dan lur zatia, 14.1.2 exekuzino unitateko orubearen %18,183a da.

2.- LIZITAZIO PREZIOA:

Lizitazio Prezioa, honakoa da: 175.718,97 €.

Hori horrela, ENKANTE PUBLIKOA, prezio horretatik hasita gorantz egingo da, eta eskaintzarik abantailatsuenari eta Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuarentzat etekinik handiena suposatuko dauanari adjudikatuko jako.

3.- PROZEDURA

Baldintza pleguak eta gainerako dokumentazioa Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuan aztertu eta eskuratuko dira, ordutegi honetan: 09:00etatik 14:00etara astelehenetik barikura. Deialdia egiten dan egunetik lizitazio data egunera arteko epea egongo da dokumentazioa aztertu eta eskuratzeko.

Proposamenak Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuan aurkeztuko dira hamabost laneguneko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia publikatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



Proposamenak, epea amaitu eta zapatua ez dan hamargarren lanegunean zabalduko dira, eguerdiko 12:00etan, Udal Areto Nagusian.

Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioan inolako akats materialik aurkituko baleu, hiru (3) laneguneko epea, ez gehiago, emongo dau, egoki ikusten badau, lizitatzailleak akatsak zuzendu daizan.

4.- ADJUDIKAZINO FORMA

Kontratu hau ENKANTE PUBLIKO bidez esleituko da eta, bardinketarik egongo balitz, zozketaz erabakiko da.

5.- DOKUMENTAZINOA ETA ONARPENA

Eskaintzaileak, gutunazal itxi bi aurkeztuko dauz zeinetan ondorengo agertuko dan: **“Bermeoko Gizarte Ongizate Patronatuak 14.1.3 Exekuzino Unitatean, daukan lur zatiaren salmentan parte hartzeko proposamena”** lema; lizitatzaillearen edo horren ordezkorearen izena ere agertuko da.

“A” GUTUNAZALA:

“Dokumentazio Orokorra” azpi-izenburua edukiko dau. Dokumentazio originala erantsi behar da, edo Notarian edo Administrazioan erkaturiko kopien bidez.

“A” gutunazalan ondorengo dokumentuak sartu beharko dira:

-Proposamena sintzen dauanaren NANA.

-Pertsona juridikoa bada, Sozietatearen Konstituzio Eskrituraren kopia baimendua, edo notariako testigantza, edo behar dan moduan legeztatutako fotokopia, eta Administrazioagaz kontratatzeko, proposamena sinatzen dauanaren alde emondako ahalmen nahikodun ahalordea edo testigantza notariala, merkatal Erregistroan inskribaturiko bataren eta bestearen dokumentu bateratu bat.

-Lizitazio egunerako zergarekiko betebeharrak guztiak ordainduta daukanaren Lurraldeko eta Udalaren Ziurtagiriak.

-Eskatutako behin-behineko fidantza jarri dauanaren gordekin kreditatzailea.

-Enpresako langileen Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta daukanaren Ziurtagiria. Guzti hori pertsona juridikoa dan suposamenduan.

-Ezgaitasun edo bateraezintasunean ez dagoanaren aitortpen espresua eta erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeko 49. artikuluan aipatzen diran baldintzak betetuz (2 eta 3 ERANSKINAK)



“B” GUTUNAZALA:

Eskaintza ekonomikoa, Plegu honen azkenean erantsitako proposamen ereduaren arabera, zeinetan, eskaintzen dan kantitate konkretua eta zehaztua ezarriko dan.

Aipatutako dokumentuak ez aurkezteak, edota, aurreko atalean aurreikusitakoa zehatz ez betetzeak, eskaintza ez onartzeko zioa emongo dau, Herri Administrazioiko Erregimen Juridikoa eta Administrazio-Jardunbide Arruntaren Legeko 71. artikuluan xedaturikoan izan ezik.

Adjudikaziodunak, 15 eguneko epe barruan jakinarazi beharko dauz sortu daitekezan ezgaitasun eta bateraezintasunak.

Lizitatzailleak, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dau, betiere, hau notariala bada eta legalizazio eta legitimazinoari jagokonean, Legeak eta Erregelamendu Notarialak ezartzen dauzan baldintzera egokiturik. Administraziozinoako dokumentuak badira, originalak, kopiak ala behar dan moduan egiaztaturiko fotokopia.

6.- KONTRATAZINO MAHAIA

Kontratazino mahaiak, aurretik, izaera juridikoa daukien dokumentuen balio formala aztertu eta kalifikatuko dauz, kontratua adjudikatu baino lehen.

Ondoren, Kontratazino Mahaiak eskaintza ekonomikoen dokumentazioa irekitzen jardungo da, kontratazino organora jaso, ekonomikoki abantailatsuenak dan prezioa eskaintzen dauan eskaintzailearen aldeko adjudikazino proposamena. Honek ez dau sortzen inolako eskubiderik proposatutakoaren alde Administraziozinoaren aurrean, Kontratazino organoaren akordioaz kontratua adjudikatzen ez dan bitartean.

Enkanteetan adjudikazino hogeita hamar eguneko (30) gehiengo epearen barruan egin beharko dira, hartutako eskaintzen irekitze egunetik hasita.

Aurreko paragrafoan seinaturiko epean adjudikazino akordioa emoten ez bada, parte hartzaileak bere proposamena erretiratzeko eta emondako bermea itzuli edo indargabetzeko eskubidea eukiko da.

Kontratazino organoaren akordioa proposamenari egokituko jako Sektore Publikoko Kontratuen Legerian aurrikusitako kasuetan izan ezik.



7.- ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Adjudikazioa egin ondoren, adjudikazioduna, horren jakinarazpena hartu eta ondorengo egunetik hasita, honetara dago behartuta: hilabeteko epean, salerosketa eskritura publikoa sinatzen Bermeoko Notarioaren aurrean.

Adjudikaziodunak horrela nahi izan ezker, eskriturak euskeraz sinatzeko aukera izango dau eta, horrela egin daiten, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Patronatuak beharrezko pausoak emongo dauz. Aukera honek ez deutso inolako kostu gehigarririk suposatuko adjudikaziodunari.

Parte hartzaileari egotzi leikiozan kausak dirala medio, aurreko klausuletan zenbakituriko dokumentuetariko edozein falta, edo osotu barik dagozalako kontratua ezin izango balitz formalizatu, administrazioak, interesatuari audientzia emon eta gero, horren suntsiaraztea akordatuko da.

Kontratua suntsiarazten dan kasuan, adjudikazinoa baliogabe geratuko da.

Kausak ez balira enpresariari egoztekoak, Administrazioak luzatu egingo dau Idazki arrazoituaz, adjudikaziodunari epe barria jakinaraziz, zeinek inolaz ere ezin izango dau seinaturiko epea gainditu, tratatzen dan kausaren ondorioz galduta gertatu daitekeen denbora berbera.

Kontratuaren formalizazioagaz batera, adjudikaziodunak Plegu honegaz bat datorrenaren adostasuna sinatuko dau. Dokumentu hau eta adjudikatutako eskaintzen ezaugarriek, kontratuzko izaera izango dabe.

Adjudikaziodunek, kontratuaren formalizazioa baino lehenago publizitate gastuak ordaindu dauzanaren gordekin kreditatzailea aurkeztu beharko dabe.

8.- BERMEAK

Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dabe lehiaketa honetan parte hartzeko. Berme horren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuen %1 izango da, hau da, 1.757,19 €. Esleipen proposamena egin eta gero, diru kopuru hori itzuli egingo da. Hala ere, behin-behineko bermea atxiki egingo da, proposamenean agertzen dan parte hartzaileari adjudikatzeko erabakia hartu arte, baita, Sektore Publikoko Kontratu Legearen 91. artikulua ezarritakoak eta esleipena egin orduko euren proposamena beste arrazoi barik aldentzen daben parte hartzaileei kendutakoa ere atxiki egingo dira.



9.- ENKANTEAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

Besterenangatzea goren mugako prezioaz ulertzen da.

Eskuratzailleak uko egiten deitso saneamendu eskubideari, ebikzioa etorriko balitz, ukapen hori arriskuen ezagupenaz egiten da eta ondorioen menpe; beraz, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Patronatua, besterenangatutako ondasunaren erantzukizunaz salbuetsita geratzen da, momentu guztietan eta edozein zirkunstantzietan.

10.- ORDAINKETA FORMA

Adjudikazioaren prezioa Bermeoko Gizarte Ongizate Patronatuari ordainduko jako eskritura publikoa sinatzen dan ekintza berean. Ordainketa transferentzia bidez edo Banketxek edo Aurrezki Kutxak konformaturiko taloiaren bidez.

11.- ERAGINAK ETA IRAUNGITZEA

Kontratua, eragin eta iraungitzeari jagokonean, indarreango Zuzenbide Pribatuko arauz erregulatua ulertzen da.

12.- BERMEAREN ITZULKETA

Fidantza, behin-betiko adjudikazioa egin ondoren itzuliko jake lizitatzaillei, adjudikaziodunari izan ezik, honeri jagokon abonua egin dauanaren froga aurkezten dauan momentuan itzuliko jako.

Kontratuaren interpretazinoari buruz sortutako arazo eztabaidatsuak, Kontratazino Organoak erabagiko dauz, eta horren akordioek, administrazio bideari amaiera emongo deusie eta horreen aurka errekurso kontentzioso-administratiboa jarrai ahal izango da, aipatutako Jurisdikzioko Lege erregulatzaillean xedatutakoaren arabera, aldeei jagoken beste edozein foruren errenuntzia espresuagaz aurretik esandakoaren kalte barik, Lege aurrean ikusten dan beste edozein errekurso egin daitekeelarik.



1. ERANSKINA

.....
jaun/andereak,ko kalem,
..... zenbakian bizi danak, telefono zenbakia eta
..... zenbakidun NANA daukanak, bere izenean edo/eta
..... Enpresaren ordezkari legez, eta
.....ko kalem,
zenbakian helbidea daukanak, telefono zenbakia, eta
..... IFZ daukanak, zein, Klausula Administratibo
Partikularren Pleguan aurreikusitako forman kreditatzen dodan, zera adierazten
dot:

1.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez,
ENKANTE PUBLIKOeran deialdia ezagutu ahal izan dodala, **Bermeoko**
Gizarte Ongizate Patronatuak 14.1.3 Exekuzino Unitatean, daukan lur zatia
eskuratzeko.

2.- Administrazio Klausula Partikularren Baldintza-agiria aztertu eta
ezagutzen dodala.

3.- Halaber, Klausula Administratibo Partikularren Pleguetako lehenengo
klausulak aipatzen dauzan erregelamenduzko testu legalak ezagutzen
dodazala.

4.- Ados nagoala eta, borondatez, horren esku geratzen naizela eta
aurreko 2, 3 eta 5. eta hurrengo ataletan hurrenez hurren aipatzen diran
dokumentu guztiak eta erregelamenduzko testu legalak, oso-osorik eta aldaketa
barik onartzen dodazala;

5. Aipatutako eskubide eta betebeharrak eskuratzeko
..... €
(letratan:.....
..... euro) ordaintzeko eskaintza egiten dodala (jarri prezioa zenbaki eta
hizkiez).

Bermeon, 2011kako(a)ren(e)an

IZENPEA



2. ERANSKINA

..... jaun/andreak,
zenbakidun NANA daukanak, eta helbidea
..... dauanak:

Egiaztatzen dau, ez dagoela debeku kausetan, ezgaitasun edo bateraezintasun egoeran, Administrazioagaz kontratatzeko, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dauzan 30/2007 Legeko 49. artikuluan zenbakitutakoen arabera.

Eta horrela jasota geratu daiten, Administrazioagaz kontratatzeko lizitatzailleek aurkeztu behar daben dokumentazioaren eraginetarako Ziurtagiri hau luzantzen da:

.....n 2011ko (a)ren
.....(e)an

IZENPEA:



3. ERANSKINA

..... jaun/andreak,
zenbakidun NANA daukanak, Enpresaren
..... legez eta
..... bulegoak helbide honetan
daukazanak:

Egiaztatzen dau, ez bera, ez ordezkutzen dauan Merkataritzako Elkartea, ezta Elkartearen Gobernu Organoa osatzen daberen pertsonak ere, ez dagozala debeku kausetan, ezgaitasun edo bateraezintasun egoeran, Administrazioagaz kontratatzeke, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dauzan 30/2007 Legeko 49. artikuluan zenbakitutakoen arabera.

Eta horrela jasota geratu daiten, Administrazioagaz kontratatzeke lizitatuzaileek aurkeztu behar daberen dokumentazioaren eraginetarako Ziurtagiri hau sinatzen da:

.....n 2011ko (a)ren
.....(e)an

IZENPEA:

